



horrelakoak dira
inchausti
mobiliario-ren
logelak




estilo
guztietakoak,
prezio
guztietakoak



markarik
onenak:
arruti, pianca,
forestier, valenti,
punt moble, kron,...



2 metroko
zabalerako
oheekin,
artikulatuak,
latexezkoak



konponbide
zehatzak arazo
zehatzetarako:
somiera kaxoi-
altzariarekin, neurrira
egindako armairuak,...



finantzaketa
interesik gabe,
24 hilabetetan



ezagutu
Gipuzkoako
altzari
sorta handiena
eta eguneratuena

MOBILIARIO
INCHAUSTI

N-1 errep., Errekalde. LASARTE-ORIA
Ternuako Arrantzaleen kalea, 2. AMARA (ARCCOren ondoan)

Estatu Batuak



2000ko hauteskundeak

Eztabaida sortu da ordezkarien boto eta herritarren botoen balioaz

Batzuen ustez, presidentea zuzenean hautatu beharko litzateke

Agentziak / Washington

Astearteko hauteskunde ondoan, eztabaida sortu da herritarren botoen eta ordezkarien botoen inguruan, Al Gorek herritarren boto gehiago lortu arren,

George Bushen hauteskunde kolegioetan ordezkari gehiago eskura ditzakeelako. Egun ordezkariak izendatzen dute presidentea, baina herritar batzuek uste dute bidezkoagoa izango litzatekeela biztanleek zuzenean aukeratuko balute.



RYAN J. SPARROW / AP

Floridako Jacksonville herrian berriro aritu ziren atzo botoak zenbatzen, ikuskatzaile baten aurrean.

GEORGE BUSH hautagai errepublikanoak EEBBetako presidente izatea lortuko balu ere, bere garaipenak legitimazio txikiagoa izan lezake, haren arerio Al Goreri boto gehiago eman baitzioten estatubatuarrek. Baina XVIII. mende bukaeratik hona hauteskunde kolegioetan ordezkari gehien dituen hautagaiak eskuratzen du boterea, haiek baitira presidentea hautatzen dutenak. Al Gore Etxe Zuritik kanpo gelditzen bada, hirugarren aldia izango da gauza bera gertatzen dena, eta herritar batzuk hauteskunde sistema zalantzan jartzen hasi dira. Presidentea herritarrek zuzenean aukera dezaten eskatzen ari dira. Izan ere, Konstituzioak ez ditu beharzen ordezkariak herritarren borondatea betetzera.

1776an galdu zuen estreina aldiz herritar gehien babesa jaso zuen hautagai batek presidente izateko aukera; Samuel Tilden demokratik. Bere arerio Rutherford Hayes errepubli-

Herri txikien konkista

■ BUSH Gore baino sei konderri gehiagotan nagusitu zen astearteko hauteskundeetan —2.434 konderritan lortu zuen ordezkarietza, 29 estatutan—, baina biztanle kopuru gutxiago dutenetan. Nekazaritza guneeetan eta hiri txikietan hobetsi zuten hautagai errepublikanoa, eta lurralde horiek izan daitezke etorkizunean Estatu Batuetako lehendakari kargua erdiesteko gakoa. Izan ere, biztanleria %14

handitu da haietan 90eko hamarkadaz geroztik, eta %5 bakarrik handitu da hiri handietan.

Albert Gorek EEBBeta bi kostaldeetan eta iparraldean lortu zuen gehiengo —677 konderritan, 19 estatu—. Konderri kopuruan alde handia izan arren, biztanle kopuruan ez da hainbeste; 143 milioi herritar bizi dira George Bush nagusitu den lekuan eta 127 milioi Al Gorenean.

kanoari %3ko aldea aterazio arren, Hayesek 99 hauteskunde kolegioetan lortu zuen ordezkaria, iruzurrari eta batzorde berezi bati esker. Florida, Hego Carolina eta Louisiana izan ziren garaipenaren giltza.

Hamabi urte geroago, errepublikano baten txanda izan zen. 95.713 herritar gehiagok bozkatu zuten

Benjamin Harrison errepublikanoaren alde, baina Grover Cleveland presidentek irabazi zuen azkenean, ordezkarietan 233-168 aldea zuelako.

Orain askoz txikiagoa da bi presidentegaien arteko aldea. Horrek ez du, ordea, hauteskunde sistemari buruzko eztabaida piztea eragotzi.